

Aretxabaleta, 1993ko  
1993ko uztailak 1

# Aretxagazeta



## Bedarretan

• *Larriño*ko jaiak

• Afizioak: Jose  
Mari Roldan

• Kirolak:  
Futbito  
txapelketa



beinke  
Atxabaltan  
euskaraz!!

Gogoa aspalditxotik bizirik zegoen. Baina lo. Emakumeok Atxabaltan gure aisialdia eta gure izaera euskaraz osatzeko

## Emakumeok tril

asmoa bai, behin edo behin berba egin, baina kosta egiten zen gorpuzten. Herrian emakumeok eta emakumeontzako antolaturiko ekintzak nahiko murrizak eta gehienetan erderazkoak izan ditugu.

Beinke elkartearen barruan ekingen hala, gure gogo horrek zeintzu ezaugarri izan beharoko lituzkeen eta gure proposamenak jasotzen.

Burrundararik benetan izatera saltotxoaz izaten da eta horretan gure ustez AEDko Ekin emakume taldeari esker eman beharrean

gaude eman zizkiguten argibideengatik.

Hala bada, hasi ginen kuadrila eta estilo desberdinetako emakumeak biltzen eta gure taldearen ize-nak dioen erara, hemen-txe egin genuen tril.

Ez da inolaz ere talde itxia, edozeinek dauka taldean tokia eta denon egiteko ilusioa elkarrekin herri-za zabaltzeko gertu gaude.

Herrian azalduko diren proposamen eta ekimen desberdinekin emango diote bizitasuna gure taldeari eta horretan duda barik emakume danok daukagu protagonista izateko

aukera.

Orain arte aurkezpenaren ondoren hitzaldi bat egin dugu eta esan behar oso pozik gaudela izan dugun harrerarekin.

Aurrerantzean ere, ikastaro eta ekitaldi berriak antolaturik dauzkagu edonorentzako zabalik emakumeok antolatzaile izan arren.

Denon partehartzea gure animoaren parekoa bada, ez da gutxi izango!!

"Kuadrila eta estilo desberdinetako emakumeok hemen-txe egin genuen tril."

**Beinke Elkar-  
teko emakume  
taldea, Tril**

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkartea, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretti Ayastuy eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala.  
**Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.



# Zelan egin dituzu azterketak?



**Leire Gorostiza**  
( U.B.I.ko ikaslea )

Kurtsoan zehar ondo, baina selektibitate txarto. Selektibitatea alperrik egiten den azterketa bat iruditzen zait.

Selektibitatearen imagin bat egiten duzu eta gero ez da jendeak dioen bezain gogorra.



**Gorka Nelson**  
( 8. mailako ikaslea )

Azterketak nahiko ondo, "gizarte" besterik ez dut utzi.

Azterketetarako asko ikasten dut, baina gutxiengustutzen zaidana "gizarte" denez, ez zait bat ere ondo joan.



**Mikel Bengoa**  
( Unibertsitatean )

Azterketa batzuk ondo joan zaizkit, beste batzuk, barriz, txarto.

Ni azterketak egiteko orduan ez naiz nerbio-so jartzen baina aurretik bai.



**Borja Aldalur**  
( 2. R.E.M.ko ikaslea )

Ez oso ondo, bigarren hiruhilabetetik konaturatu nintzen errepikatu egin behar nuela ondo ez nabilelako eta azkenean mordoska bat utzi dut. Irailean aprobaten saiatuko naiz, baina ez dut espero ateratzerik.

## KARTAK

### ... Eta orain zer?

Ez dira egun asko igaro erabaki drastiko edo makabro baten aurrean aurkitzen ginenetik: LORAMENDI IKAS-TOLA sare publikoan integratu edo ez hain zuzen ere.

Administrazioaren jokaera gogor salatu ondoren bai alde batekoek eta bai bestekoek bozketa egin zen eta gehiengo nabarmenez BAIETZA atera zen.

Eta orain zer? Hau da

gu kezkatzen gaituena gure seme-alaben hezkuntz ibilbidean parte izan nahidugueta.

Ez gaituzen erori administrazioari bota diogun erru berberetan: elkarriketa falta, interes konkretu batzuen defentsa soil, gurasoen parte hartze bazeza...

Hemen Aretxabaletan denok ezagutzen gara eta eskolak ere nahiko ezagutzen direla esango genuke eta be-

raien arrakasta eta erakartze indarrak bakoitzean dauden agintetalden gaitasunen arabera daudela ere antzematen da.

Personen artean hitz egin dezagun, elkartu gaituzen, aintzakotzat har dezagun administrazioak hartu ez duen guztia: udaleskolarrearen duen irakaslegoa, Guraso Elkarte, Zuzendaritza... inork baino hobeto eraman bait dute jakin du-

gunez 10 urtetako elkarbizitza alukeriari alde batera utzita.

Ez dezagun ahokada batez irentsi sansibilitate desberdinak biltzeko izan duen gaitasuna eta hau bai dagoela Udaletxe Udaleskolarrean eta Kurtzebarri eskolako Zuzendaritza Kontseiluen borondate sentsibilitate eta gaitasunean.

*Bi guraso*



## Hezibideren prentsaurrekoa

Ekainak 17an Hezibiden prentsaurrekoa izan zen. Bertan parte hartu zutenak hauek izan ziren: Jose Antonio Mendikute Hezibideko lehendakaria, Felix Ormaetxea Hezibideko zuzendaria eta Aitor Sarasua Hezibideko Talde Tekniko kidea.

Prentsaurreko horren helburua hezibide zer den azaltzea, Erreforma ezagutzera emateko erabiliko diren medioak aurkeztea eta hezkuntza denok dugun partaidetazaz jabetzea zen.

Aurkeztu ziren gaiak, barriz, honako hauek izan ziren: Jose Antonio Mendikutek Hezibideko Katalogoaren aurkezpena egin zuen. Felix Ormaetxeak, Ikastolek hartu duten erabakiari buruz jardun zuen eta azkenik, Aitor Sarasuak Erreformaren Proiektua aurkeztu zuen.

Ikastolek hartu duten erabakiari buruz honako hau esan zuten: "Deba Garaiko ikastolek beren

hezkuntza - proiektuari eustea erabaki dute. Aukera hau bailarako gizarteari zerbitzu hobea eskainiko diotelako egin dute eta horrela erantzukizunak euren gain hartuko dituzte inoren esku utzi barik. Hala ere, guk begirune oso diegu bestelako aukerei."

Hezkuntza Erreformari dagokionean: "Hezibiden koordinatuta dauden 8 zentruak hobekuntza lortu guran, LOGSE erreforma legearen filosofia nagusia jarraitu dugu. Erreforma sartzearekin batera ikasleen heziketan benetako hobekuntza egon dadin lan egiten da."

Bestalde Hezibiden biekintza jarri dira martxan, informazioa zabaldu guran: batetik komikia, lehenengo alea banatu da eta hurrengoak irailetik aurrera banatuko dira. Bestetik ATBn 31 bideo laburretan ionarrizko informazioa ezagutzera emango da.



## Euskararen egunean pastoralala eta afaria

Ekainaren 19an urterot moduan, euskararen eguna ospatu zen. Bertan, Goñin begirale izandako talde batek Martin Agirre pastoralala antzestu zuen. Plazan jende ugari bildu zen, Atxabaltan egin zen lehenengo pastoralala ikusteko. Ondoren bonba japoniarrak,

buruhaundiak eta trikitaliak egon ziren. Bukatzeko Iturrigorri frontoian, 120 ren bat lagun bildu zituen herri afaria egin zen. Afariaren ostean, Saltsamaltza taldeak alaituriko dantzaldia egon zen. Gau osoan zehar giro ona izan zen nagusi.



**IZOTZ  
TABERNA**

MITARTE KALEA  
☎ 79 73 65



Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
☎ 79 01 72



**MIREN & ZURINE**  
BITXIEN DISEINUA

Otalora Kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57  
**ARETXABALETA**

BITXITEGIA





## Aldizkari banaketa festa

Joan zen ekainaren 10ean Kurtzebarri eskolako 8. mailakoek eurek egindako aldizkari buruzko ekintzak ikusiahal izan genituen.

Bertan 11.30etan prentsaurrekoa eman zuten ikasleek, eskolako liburutegian. 11.45ean bertso eskeintza bat eman zuten, 11.50etan Jesus Garmendiak, Eskoriatzako Irakasle Eskolako zuzendariak hitzaldi bat eman zuen, eurek egindako aldizkariak aurkeztuaz. 12etan aldizkari eta diplomamen banaketak izan ziren.

Bukatzeke, eskolako aretoan lunch bat eman zen.

Eman zuten prentsaurrekoan honako azlpenak eman zituzten *"haur bakoitzak bere aldizkaria egin zuen, Atxabaltako pertsonaia, tokiei...buruz, urte guztian zehar, euskerako klaseetan."* Aldizkari horretan anekdotak, komikiak eta jokuak ere izan ziren. Benetan aldizkari onak eta interesgarriak egin dituzte gazte hauek.

Eurak esan zuten, lehenengo Aretxagazeta eta Arrasate Pressen laguntza izan zuten eta gero, Kurtzebarri eskolako irakasle batzuen.

la horrelako aldizkari gehiago egiten dituzuen.

## Larriñoko jaiak

Aurten, urtero moduan, heldu dira San Kristobal eta Larriñon hainbat ekintza antolatuta dituzte uztailearen 9, 10 eta 11rako.

Uztailearen 9an, eguakotxean, arratsaldeko 7,30etan emango zaie hasiera jaietara etxalero jaurtiketa eta kanpai hotsekin. Gabeko 11etan dantzaldia izango da "Alaitz eta zigor" trikitilariekin.

Zapatuan, eguerdiko 12etan Meza gidarientzako eta San Kristobal lora eskaintza egongo zaio. 12,30etan pelota partiduak, auzoko pilotalekuan.

Arratsaldeko 6etan umeentzako jolasak: sokatira, zaku-karrerak... sariak guztiendako egongo dira. Mus eta tute txapelketak ere 6etan izango dira. Gabeko 9etan auzofaria eta 11etan dantzaldia trikitilariekin.


Domekan, eguerdiko 1etan Meza nagusia, Atxabaltako Abesbatzarekin eta ondoren luntxa guztiendako. Horrekin bukatuko dira jaiak.

• Uztailearen zehar Eskoriatzako plazan zinea ikusteko aukera izango da. Pelikulen emanaldia astelehen, eguazten eta eguakotxetan izango da gabeko 10.30etan.

• Atxabaltako Udal liburutegiak bere zerbitzuak zabaltzeko asmoaz ordutegi berria izango du. Goizeko 11etatik 1etara eta arratsaldean 5,30etatik 8etara. Bestalde liburutegiko libururen bat etxean daukate-nei ahal bezain laister ekartzea eskertzen da, liburutegiokoa lana errazteko.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Basabe industrialdea  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 88 75

Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

Biteri etorb. 15  
Arrasate  
Tfnoa: 77 12 39





## Leber, zentro psikopedagogikoa

Leber Zentzo psikopedagogikoa 3 pertsona dabilta lanean: Izazkun Antxia pedagoga, Izazkun Urrutia pedagoga eta Virginia Armentia psikologoa.

3 urtetan hurrekin izandako esperientziaren ondoren eta Atxabaltan honelako zerbitzurik ez zegoela ikusirik, LEBER gabinetea zabaltzea erabaki zuten. Gabinetek horretan hezkuntza mailan eragina duen edozein arazo psikopedagogikori erantzuna ematen zaio.

Arazoak mota desberdinekoak izan daitezke: pedagogikoak, logikoak edo baita hizkuntza arazoak ere. Askotan

etxean euskera ez dakitelako haurreneuskerak sakontzeko erosten dituzte.

Lehenengo diagnostiko bat egiten diote haur bakoitzari, test batzuen bitartez. Gero, elkarriketa izaten dute guraso eta irakasleekin eta ondorioen arabera, bakoitzari dagokion terapia jartzen zaio.

Haurrak zuzenean gurasoen bitartez jotzen dute zentro horretara, ikastolaren bidez eta kasu konkretu batzuetan Udalaren bitartez.

Beraz gabinetek haur herritar guztien zerbitzurako dago.



Joan den ekainaren 21, 22, 23 eta 24ean txakurren txertaketak izan ziren. Txertaketa prebentzioagatik eta gizonari transmitigai diren beste gaixotasunengatik egiten da.

## Plenoan hainbat proiektu onartu dituzte

**Andra Mari auzunean azpiegituren berriketa:** Saneamentu azpiegituraren berriketari dagokio, ur eta argiaren bereziketa.

**32. sektoreko, Almeneko, elementuen aldaketa:** Sektoreko eremu urbanistikoak eraikuntzarako lurizaten jarraituko du.

**Arkarazoko proiektua:** Arkarazora doan errekararen zabaltze eta hobetzea egingo da. eta hormaren konpontzea.

**Koruetarako ur**

**eroatearen proiektuaren zabaltzea:** Koruetarako ur eroatearen banaketa egingo da eta Azatza auzokoak banatu.

**31. sektorearen plan partzialaren aldaketa:** 30. sektoreko biderearen egoera hobetzea espero da eta Apotzaetxeberri auzora doana ere bai.

**30. sektoreko partzelen banaketa:** Banaketa ona egitea eta eraikitzeko lekuak aprobetxatzea espero da.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55





## San Juan bezpera

Joan da aurtengo San Juan bezpera eguna. Eguraldiak ez zuen asko lagundu, baina hala ere jende ugari ibili zen kalean bai arratsaldean eta baita gabean ere. Arratsaldean bonba japoniarrekin eman zitzaion hasiera eta plazan ume ugari bildu ziren. Buruhandiak eta Loramandi dantza taldearen ekitaldiak ere izan ziren.

Gabean, barriz, 10.30etarako plaza jendez beteta zegoen sua noiz ixotu zain. Sua ixo-

tuta gero San Juan kantua kantatu. Gauerdian zezen suzkoak irten zuen.

Aspaldian Herriko plazan ez da horrenbeste jende dantzan ikusi. Tantaia igoten hasi zirenean musika gelditu arren, animazioak jarraitu egin zuen.

Poliki poliki igo zuten aurtengo kintoek tantaia, beste askoren laguntzarekin eta jendearen animazioarekin eta 2.30ak aldean lortu zuten zuzen jarretzea.

## Atzeratuen jaia Otalazelain

Datorren zapatuan, uztailaren 3an, goizeko 11,30etan Atxabaltako atzeratuen urteroko jaia ospatuko da, ARATZ taldeak (Atxabaltako atzeratuen aldeko taldeak) antolatuta.

Goizean zehar joku desberdinak izango dira, lehiaketak, gaztelu puzgarriak ....., horietan atzeratuak izango dira protagonista. Jokuak Atxabaltar gazteek zuzenduko dituzte eta urtero moduan euren laguntza eskeiniko dute.

Aurten dagoen nobedadea da Eskoriatzako atzeratuek ere parte hartuko dutela eta horrek jaia beti batera egiten jarraitzen lagunduko du.

Jokuen ostean, 2,30ak inguruan elkaritasunezko bazkaria izango dute atzeratuek euren familiakoekin, Larrinoko San Kristobal Elkartean. Guztira 80 bat elkartuko dira.

Kontuan izan behar da Larrinoko Elkartekoek eskeini duten laguntza, euren lokalak utzi eta guztia antolatzen lagunduz.

Azkenik, ARATZek herriari gobidapena luzatzen dio Otalazeilara joan dadin egun horretan eta atzeratu hauekin momentu batzuk pasatzera. Horrela ATZEGIK kaleratu duen lema gaituztuz joan gaituzten guztiok: EZEZAGUNAK, EZAGUTU.

## Urrezko ezteiak

Uztailaren 4ean eguerdiko 12,30etan Galartzako elizan urrezko ezteiak ospatuko dituzte Eugenio Zuazua eta Leandro Zaloña.

Eugenio Zuazua Egi-leor baserrian jaio zen 1918. urtean, ikastetxe desbedinetan ikasita gero, 1943. urtean eman zuen bere lehenengo meza, ondoren urte gehienak Colombian eman ditu.

Leandro Zaloña, Zaloña baserrian jaio zen 1915. urtean. Gasteizen ikasi zuen eta bere lehenengo meza 1943. urtean eman zuen. Ondoren 5 urte Untzilan egon zen eta 1948. urtean Ecuadorrera joan zen, azkenengo 4 urteotan Urkiolan dago.

Zorionak Aretxagazeta aldizkariaren izenean bie eta ondo pasatu zuen ospakizun egunean.



Ekainaren 19an Bergaran elbarrituen olinpiada izan zen. Atxabaltatik bi partaide joan ziren eta egun zoragarria pasatu zuten, mota guztietako kiroletan parte hartuz.



Heldu da bedarren garaia. Gure inguruko zelaiak bedar luzez beteta daude eta egun hauetan familia asko bedarra ebateko asmoarekin elkartzten dira. Guk ere honen barri jakin guran, Arientza-Etxebarrin eta Lekunberri baserrietan izan gara. Euren eskutik bedar munduko bitxikeriak ezagutu ditugu.



## "Bedarra batzeko bola sistema boom bat izan da"

Bedarra ebaten, udaberrian hasten da. Garai bete bete ia urtero maiatza eta ekaina izaten da, baina, negua zela joan den ikusita fetxa hori aldatu egin daiteke.

Bedarra ez da urte guztian egoten, udaberrian eta udan bedar ugari egoten da, baina ganauek ezin dute bedar guztia jan garaia hauetan. Neguan eta udazkenean gutxi egoten denez, garai hauetakoa sobrak erabiltzen dira.

### Bedarra batzeko prozesua

Bedarra hazi eta heldu egiten da, eta azkenean usteldu. Prozesu guzti honetan ganauendako bedarrak, janari moduan, berde-berde dagoenean dauka balo-

re gehien. Julen Abasolok esaten zigunez, mozteko puntua harrapatu behar zaio, ezin da edozein momentutan moztu. " Bedar batzuei, adibidez, lora urte ten dienean, justu-justu oraindik garatu barik, momentu hori izango da bedarra mozteko egokiena, janari aldetik aberatsena eta hurrengo kortea ilbeheran azkarrago etorriko da". Baina bere esanetan, horrek ere bere pegak dauka, momentu honetan, bedarrak %80 ura dauka eta hori ihartzea problema bat izaten ei da. Beraz bedarra ihartzeko, bedarrari gehiago itxoi ten zaio, bedarra gehiago heldu dadila eta ura galduta, horrela egun bateko eguzkiaz ihartuko da.

"Momentu honetan bedar asko dago, baina kalitatea eskasagoa izaten da. Ihartzeko ezinbestekoa da hau egitea."

**" Lehen bedarrak ez zuen hainbesteko garrantzia, baina orain zelaiak ugaritu egin dira eta baita ganauak ere."**

Urtean bigarren aldiz mozten denean bedarra, euriak jarraitzen badu uztailean mozten da, edo bestela udazkenean.

Azken urteetan belarra ziloetan ere gordetzen da. "Gure gurasoen denboran bedarrak ez zuen hurrenbesteko garrantzia, baina orain zelaiak ugaritu egin dira, eta baita ganauak ere. Beraz lehen eguzkia aprobetxatuz bedarra ihartzen zen, baina azkenengo 30 urteotan ziloak hasi dira. Ziloak ez dira eguzkiaren menpe egon behar. Bedarraren puntu hori ondo harrapatu dezakegu, ez duzu ihartzeko itxoi ten egon behar. Esatera batek esaten duenez San Juanak arte ziloak eta hortik aurrera ihartu."

**ziloak**

Zilo onak atarateko,



Julen Abasolok, bedarraren puntua oso garrantzitsua zela esan zigun. "Bedarra moztu ondoren ondo zapaldu behar da airerik euki ez dezan. Hor dauden mikroorganismoak oxigeno barik lan egiten dute, fermentazioa egiteko. Hiru bat astetan fermentazio prozesua egiten da eta orduan bedar hori jateko moduan dago. Gainera ermetikoki jarraitzen duen bitartean urteak pasa daitezke bedar hori jateko. Baina kontutan eduki behar da, plastikoa eguraldiarekin hondatu egiten dela beraz, onena urteko bedarra jatea izaten da."

## Eboluzioa

Aintzina lehenengo segaz ebakitzen zen bedarra, segak etxetik etxe ibiltzen ziren. Gero segadora idiek eroaten zuten, idiek tiratu eta errubera batzuen gainean doa, eta erruberek sega horren kuxtirik mugitzen zituzten. Ondoren motordun eskuzko segadorak etorri ziren eta orain gehien traktoreari akoplatzen zaizkien diskodun segadorak erabiltzen dira "lau edo bost disko hiru kutxilakin, baina hauek problema bat dute bedarra moztu beharrean apurtu egiten dutela."

Ebaki ondoren ihartu egiten da bedarra. Ihartuta gero bedarra astindu, buelta eman, hori denori eskuz egiten zen edo sardeaz. Honein hurrengo zuzenean makinaz.

Batzeko lehen eskuz eskubereaz eta orain makinaz. Ondoren etxeratu, Jesusa Biainek esan zigunez, "bedar iharra eskuz etxeratzen zen. Sardeaz burdira kargatu, burdi gainean pertsona bat egoten zen bedarra ondo ipintzeko, soka batekin ondolotu eta kamarara edo metata ipintzen zen." Zilokekin karreatu lehenengo sardeaz. Oso lan neketsua ei zen, gero autokargadora etorri zen. Horren ondoren bola sistema asmatu zen, "makinak bedarra jasoten du, bola bat egin eta beste makina batekin plastikoa jarten zaio ermetikoki egon dadin." Julen Abasolok esan zigunez bola asuntua mundu guztian boom bat izan da eta gainera oraindik aurrerapen haundiak egiten dabilta.

## Bedarraren kalitatea

Animaliaetatik gehien eskatzen duena esne-behia izaten da, pertsonak ere gehien eskatzen diolako. Ganauaren eskaerak bete-teko eta ganaua bizitzeko, bedarrari puntu egokia harrapatu behar ei zaio, bestela ganauak eurek zelaian jaten dutenaz bizitzeko nahikoa dute. Gainera Julenek esan zigunez, "ganauak bedar bat jan edo beste bat jan alde handia dago esnea atarateko orduan."

Baina bedarra moztean puntu hori ez badute harrapatzen ganauari emateko beste konplementu



**"Ganauak bedar mota bat edo beste bat jan, alde handia egoten da."**

batzuk erabiltzen dituzte: erremolatxa pulpa, arto glutena, algodoia eta lehenengo pentsua baina kantitate txikian. "Hori denori neguan edo uda zikua doanean ematen zaie. Ganauak produkzio gehiago emateko derrigorrezkoak dira konplementu horiek."

## Bedarrak ez badago zer?

Julen Abasolok esan zigunez, Kantauri aldean dugun txoiloa bedarra da, bedar barik inoiz ez gara geldituko. "Hemengo ganauentzako janari garrantzitsua bedarra izaten da, nahiz eta urte batzuk zikuak joan. Bedarrak ez badago lastoa ematen zaie."

Gure ingurua Gipuzkoa mailan ez ei da batere errepresentatiboa. Hemen zelaiak sobran daude. Eskualde honetan fabrika edo kooperatibengatik baserri asko itxi egin dira, eta itxi diren baserriak, lur sail askoz gehiago utzi diete beste baserriarrei.



**Gaur egun normala da jendea bizikletan ikustea, batez ere asteburuetan. Baina orain dela urte batzuk askoz jende gutxiago ikusten zen. Horreitako bat Jose Mari Roldan zen, beti bizikletan ikusten genuen. Orain ere asko ibiltzen da eta bere semeek ere jarraitu dute afizio horrekin. Jose Mari gaztetatik izan du afizio hori eta orain dela 10 urtetik Txirrindulari eskolako partaide da eta orain zuzendaria.**



## Jose Mari Roldan, betidanik txirrindularitzan

• **Txirrindulari Eskola hau atxabaltakoa da?**

• Beno, Deba Garaikoa da.

• **Eta zuk zer egiten duzu eskola horretan?**

• Lehenengo 10 urtetan "juntan" egon nintzen, eta orain 3 urte daroat lehendakari, baina jenderik ez dagoenez gero, zuzendaria naiz.

Horrez gain, ni karretetan kotxez joaten naiz eta pintxazo bat eukitzen badute, gurpila aldatzen diet.

• **Jendeak ez du laguntzen edo parte hartzen?**

• Hor gauden guztiok gurasoak gara 2 pertsona ezik. Guk ere geure obligazioak dauzkagu eta azkenean oso nekaztuta bukatzen dugu. Oso interesgarria izango litzateke jendea pixka bat laguntzera animatuko balitz.

• **Zenbat kategoria daude?**

• Infantilak 13 urtetik 14 urtera, hauek herrietako zirkuitoak egiten dituzte.

Kadeteak: lehenengo mailakoak eta bigarren mailakoak daude eta hauek 15 urtetik 16 urterakoak dira, hauek erre-

pideetatik ibiltzen dira.

Jubenilak: hemen ere lehenengo eta bigarren mailakoak daude, 17 urtetik 18 urterakoak, hauek elkarren arteko lehia aritzen dira.

• **Mutil asko daukazue?**

• Orain 60 dauzkagu. Orain dela urte batzuetatik numeroa igotzen ari da.

• **Eta non konpetitzen duzue?**

• Jubeniletara iritsi arte herrialdean bertan, eta urtean behin Euskadiko txapelketan; eta ona dena Espainiako txapelketara joan daiteke.

Jubenilek 3 herrialdetan eta Euskadiko txapelketan hartzen dute parte.

• **Zenbat denbora dedikatzen diozu?**

• Zaletasun honek denbora asko eskatzen dizu. Astean behin bilera eukitzen dugu eta batzuetan beste bilera berezi bat ere bai. Baina beti telefonoz deika ibili behar izaten dut, federazioz adibidez.

• **Eta zela moldatzen zara lanarekin?**

• Denori ongi etortzen zaizkigun itzuliek egiten ditugu bakarrik. Beraz, normalean oportetaren izaten dira. Adibidez, Iruñeko itzulia egiten dugu eta hau abuztuaren lehenengo astean izaten da.

• **Nor izan da zure maixua?**

• Ni lehenengo Sabinorekin ibili nintzen, orain Baneston dagoen medikua da. Berarekin asko ikasi nuen, baita liburua irakurri ere, eta noski urteek asko irakasten dute.

• **Eta nola lortzen duzue dirua?**

• Zikloturista, Kirol Talde eta Deba Garaiko Udalei esker. Gaur egun 4 bat milioi daukagu, baina ideala 6 eukitzea litzateke, mutikoek bina kulote eta kamiseta izan ditzaten. Baina daukagunarekin moldatu behar.

Patrozinatzaileek bere esku hartzen dute eskolako gastuen % 90a.





## Uztailean futbito txapelketa

Aurten ere izango dugu futbito txapelketa. Bertan herriko eta kanpoko 27 talde daude apuntatuta. Gainera nobedade barri bat daukagu, lehenengo aldiz emakume talde batek ere parte hartuko du.

Antolatzaile lanetan Jabi Eraña eta Ibon San Miguel ibiliko dira. "Orain arte Fito ibili da, baina behar ez zuela antolatu behar eta, guk pentsatu ge-

nuen antolatzea. Tradizioa apurtu ez dadin eta diru pixka bat ateratzeko hasi ginen antolatzen."

Partidu ederrak ikusiko dira Iturrigorri frontoian eta Eskola Politeknikoan 3,30etatik 9,30ak arte. Talde bakoitzak txapelketa honetan parte hartzeko 5.000 pzta ordaindu behar izan du.

Lehenengo faseak uztailearen 21erarte iraungo

du, ondoren final laurdenak, final erdiak eta finalak etorriko dira.

"Finala uztailearen 30ean egiteko asmoa dugu, baina eguraldiaren menpe gaude. Euria egin ezkererako partiduak atzeratu egingo lirake eta orduan finalaren eguna ere bai."

Hona hemen taldeen arteko banketa eta taldeak:

Portasoleko jaien egitarauan, aurten, 24 orduko futbito txapelketa antolatu dute. 24 ordu horiek uztailearen 17 eta 18an izango dira, goizeko 11etatik hasita. Parte hartzea 5.000 pzta izango da eta ARETXA K.Eko lokalean eman beharko da izena edo 79 01 84 telefonora deituta.

Joan den zapatuan UDAREN Batzar Nagusia izan zen: aurten 600.000 pezetako superabita euki dute; Etxebarriak jarraituko du preferenteko entrenatzaile lanetan eta Goio Arrieta izan go da lehenengo errejonaleko entrenatzailea; oraingo Zuzendaritza Batzordeak beste urte betez jarraituko du, baina aurtengoa azkena izango da, jende barriaren bila dabilta.

### A taldea

Eskapeu Deu  
Drin Tin  
Zezenak  
Uxkerrak  
Kamasutra  
Batubadeu  
Sasoi Solomue  
Asto Baltzak  
La Banda

### B taldea

Orlando Pirates  
Itxoiten Gazak  
Las Kagau  
K. Paloma  
Magallano C.D  
Gaztetxea  
B.B +  
Pitotxas kalientes  
Dos de Caso

### C taldea

Mazan Pulas  
Kosta ta Gero  
Los Margu  
Eztaren  
Maderazzo  
Txaston  
S.U.P.D  
C.B.B 23  
Mandingo



## Areantzako San Vicente ermita

Areantzako eremuko, euren santu-santak babes nahian ei dabiltza. Alde batetik Andramari eliza oso egoera larrian dagoela nabari da, baina bertako lanak izugarriko kostoa ei daukie. Pixkat apalagoa eta baita egoera larrian dagoena beste edifizio sakratu bat konpondu bai dute. Eta horretarako Udalarik laguntza eskatu diote. Udalak noski, baietza eman dio auzoari, San Vicente ermitako teilatua konpontzeko asmo hori azaldu baitute.

Esan bezala, San Vicente ermitako teilatua konpondu dute, gaur egun kanposantu barruan kokaturiko ermita txikia. Betiko galdera normala. Nola eliza eta kanposantua elkarrengandik hain urruti?. XVI.

mendean dagoeneko San Vicente ermita ba zegoen. Gero XVIII. mendean ermita asko desagertu egin ziren, ez baitzeuden ondo zainduta, eta batzuk, leku sakratuak zirenez, kanposantu bihurtu. Garai hartan beste ermita bat ere bazegoen: San Juan; eta San Sebastian zaindaritzat zuen kofradia ere bai.

Auzokoez oso estimatu dute euren San Vicente hau. Taila ez da guztiz txarra nahiz eta margo lanak traketsak izan. Oraindik urtarilaren 22an meza ospatzen dute bertakoek, Valencian jaio eta Frantziako Vannes-en hildako santuaren omenez.

A. Antxia  
I. Urreta



## ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteeko eguakotxa baino lehen.


- Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

**Non dago argazkian ageri den iturria?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Korueta)

**Aurreko lehiaketaren irabazlea JULEN ABA-SOLO.** Zorionak.



Erantzuna: .....  
Izen-abizenak: .....  
Helbidea: .....  
Tfnoa: .....



## Tantaixa tente



J.J. Aretxaga

Txukun jaso zuten tantaixa. Poliki baina txukun. Palanken partez aurten tramankulu barri bat asmatu dute kintoek. **Ekaitz, Aitor** eta **Asier**-en ingurutik sortu zen ideia eta **Antonio Villar**-ek egin zuen tramankulua. Ohitura zaharretan ere idea barriak sartzen dira hemen: pinua eta teknologia propioa. Beti moduan injineruak jaleo apur bat armetan ibili ziren, sokak zabalago jarteko eta estuago jarteko. Injineruen artean ibili zena **Ibai** kintoa izan zen.

Teknika barritzea ona da, kontua tantaixaren, suaren eta kantuauren ohitura mantentzea da. Kantua ikusi nuen flojo samar. Txistulariak fin ibili ziren, baina herriak gutxi kantetan du azken urteetan. Hor zerbait egin beharra dago, nahiz eta aurten **Beinkek** kantu-orriak banatu. Beste detaile bat, argiena. Sua ixotuta gero plazako argiak piztuta egon ziren. Giltzaduna falta zen, itxuria.

San Juan inguruan **Zirkoa** ere izan dugu he-

rrian. Asunzioneko fabrika zegoen lekuan bi egunetan egon da karpa. Baina zirkoa ez da garai batean zena... **Zuzen** Hirugarren Mundu Taldekoak ere lanean ibili dira egunotan. Peruko artesanía eta haien ekonomia bultzatzeko, hango artelanen azoka txiki itinerante bat atxalbaltan jarri zuten, Zuzen taldekoen eskutik.

Kurtzebarri Eskolan zuzendari barria jarri dute. Orain arte **Maria Dolores Akizuk** izan du eskolaren ardura, eta orain **Guren Gonzalez** jarri da zuzendari. Aretxabaletan bizi den garindar batek, **Gurutze Mujikak** Eskoriatzako San Pedro jaietako kartel lehiaketa irabazi du.

Kiroletan denetik daukagu. Zarata haundirik ez dute ataraten, baina herrian badaude gimnasia erritmikoa egiten dutenak. Horietaiko bat, **Mireia Iglesias**, Euskadiko txapelketan bigarren geratu da. Zorionak. Inportantzia haundiagoa ematen zaien kirolak ere badaude, eta honeitako kirolariak famatuagoak izaten dira herrian. Honeitako bat da **Asier Guene-txea**. Suerte txarra euki zuen Euskal Bizikletan. Justo Aretxabaletatik pasatu baino egun bat lehenago karreraz kanpo geratu zen.

**Goio Arrieta** eskoitzar atxalbaltartua izango da lehen erregionaleko futbol taldearen entrenatzaile barria. Bere lehendakaria den **Eduardo Altubek**, beste urtebetez jarraituko du UDAKO lehendakaritzan. Baina abisatu du: azkena.



Barruko indardun edertasuna.

Injinerutza aurreratua eta aintzindaririk gabeko maila teknikoa



## 1

### EGUENA

- **Udaleku Irekien hasiera.**
- **Udako Kirol ihar-dueren hasiera:** Tenis, badminton, eskalada, espeleologia, igeriketa, mountainbike, ajedrez eta piraguismo.

## 3

### ZAPATUA

- **Otalazelain Aretxabaletako atzeratuaren kontzentrazioa**

**egingo da.** Jolasak, musika... goizeko 11etatik 2etara.

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Gau ibilaldia.**
- Gaueko 9retan, Eskoriatzako Parrokian, **Gorosarri abesbatza-ren kontzertua.**

## 4

### DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Oizera.**
- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Oñara.**

**ti-Udana-Zumarraga-Beasain-Segura-Zegama-Otxaurte-Alsasua-Narbaja-Aretxabaleta.** (128 Km)

- **VII. Margo Lehiaketa.**
- **Andramaixetako kartel lehiaketaren sari banaketa,** Udaletxe-ko ganbaran, arratsaldeko 7retan.

## 5

### ASTELEHENA

- **VII. Margo lehiaketako lanen erakusketa,** Udaletxe-ko ganbaran, uztailak 23rarte.

## 11

### DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Gatzza Aretxabaleta.**
- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Urbina-Arkaute-Salbaterra-Narbaja-Aretxabaleta.** (128 Km)

- **OHARRA:** Uztailak 15, 16, 17 eta 18an, **Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: Gazteendako akanpada Leixargaratera.**

## ARETXAZOKA

### Lana

- OHO-ko klase partikularrak ematen dira. Interesatuak deitu 79 87 36 telefonora eta Anabelegatik galdetu.

- Ingeneritzako ikasle bat, klaseak emateko prest: Matematika, teknologia, fisika eta kimika. O.H.O, REM eta U.B.lko mailetan. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 50 39.

### Salerosketak

- Pisu bat alkilatzea gura nuke eta guztiz hutsa baldin badago hobeto. Gauetan deitu telefono honetara: 77 11 22.

- Pisu bat saltzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 07 36.

- Lur azpiko garajea saltzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 86 72

### Salerosketak

- Pisu bat alokatze-ko dago. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 40 19.

- Atxabaltan pisu bat alkilatzea gura nuke. Lo egiteko aukera baka-rik. Tfnoa: 79 59 78.

- Vespa motorra SS-V salgai. Tfnoa: 79 91 41

### Denetarik

- Aliantza bat galdu da. L.L.inizialekin eta 25-x-31 dataekin. Aurkitzen duenak deitu telefono honetara: 79 45 95.

- Galdutako motxila bat aurkitzen da Udaletxean, barruan giltza batzuk dauzka. Jabea pasa dadila Udaletxetik, Udaltzaingoaren bulego-tik.



**SEAT**



**GARAJE  
OSKAR**

Basabe poligonoa

A - 2 - 4

Tfnoa: 79 98 74

**ZARIAI TABERNA**

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA  
ANAIK

**BASABE  
JATETXEA**

Menu eta afariak  
Industrialdea

**ARETXABALETA**

Tfnoa: 77 07 94

79 91 84

**ITURGINTZA**


**JJ**

Tfnoak: 79 07 34

79 31 87

**LEIBAR**

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETA



Mitarte 21, behea  
Tfnoa: 79 79 79  
ARETXABALETA



**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA

**Zatoz ezagutzera**

**ZUHAITZ**

**jatetxea!**



Tfnoa: 71 46 08

**GATZAGAN**

**RKLU**

INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

**IMANOL ARRAZOLA**

**KLINIKA DENTALA**

Otalora, 18 - 1. D  
☎ 79 93 55

**Mobiliario**  
**ARENZA**

ALTZAIRUAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

**LASA-AGUILERA**

**Aholkularitza**

Andra Mari Auzunea,3

☎ 79 29 26

ARETXABALETA

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

**OSKAR**

**HARAGITEGIA**

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

**ARETXABALETA**

**NERIAN**

Loradenda

Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66



# EGUZKiGRAF, KOOP. ELK.

inprimategia

*Bezeroenganako zerbitzuak  
hobetu asmoz, inprimategia  
haunditu egin dugu.*



...orain, Industrialdeako  
F pabeiloian aurkituko  
gaituzu, lehen geunden  
eraikuntzatik 200 metrotara.



**EGUZKiGRAF, KOOP. ELK. - inprimategia**

Aldizkariak • Katalogoak • Merkatal inpresoak • Filmatze zerbitzua

Basabe Industrialdea - F pabeiloia • 20550 ARETXABALETAK (Gipuzkoa)

Tfmoa.: 943 - 79 29 41 • Faxes: 943 - 79 18 44